




Zainetatik zilarra

Nahia Intxausti Intxausti

Poesia, 69

978-84-9172-472-8

2026 - 96 or. - 15 x 21,5 cm - 16 €

Ernestina de Champourcin XXXV. Poesia Saria

Noiz konturatzen gara bizirik gaudela? Gorputza eritasunarekin iratzarri al daiteke? Norbere gorputza biziberritzeko zeharkaldian izandako enkontru eta desenkontruak jasotzen ditu Nahia Intxaustik, natura baliabide gisa erabiliz. Poemarioa ondokoen babesarekin norbera biltzera egiten den bidaia bat da, baina, halaber, piztia bihurtzeko keinua ere bada, gaixotasunaren ikusezintasuna, eta gorputzekiko presio soziala eta kontrola borrokatzeko kanporantz irekitzen den kontakizun partekatu eta errebeldea.



NAHIA INTXAUSTI INTXAUSTI

(Lasarte-Oria, 1980)

Pedagogian Doktorea (EHU). Irakaslea eta ikertzailea da Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologiako Fakultatean (EHU). *Zainetatik zilarra* du lehen poema liburua. Poesia bilduma horrek eskuratu zuen «Ernestina de Champourcin 35. Poesia Lehiaketako Euskarazko Saria», Arabako Diputazioak sostengaturikoa.